


Balenciaga Etxearen
marrazkiak
1943-1964

Riva Funtsa.
Euskadiko Artxibo
Historikoa

Cristóbal Balenciaga Museoak Balenciaga Etxearen marrazkien erakusketa bat zabalduko du. Marrazki-bilduma Euskadiko Artxibo Historikoaren Riva dokumentu-funtsaren barruan dago. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak 2022an erosi zion funtsa Lorenzo Riva italiar diseinatzaileari, eta erakusketa funts horren erakusgarri da, 8.000 erreferentzia baino gehiagorekin.

Erakusketaren ondoren, agiriak Cristóbal Balenciaga Museoan gordailutuko dira, han aztertu eta ikertu ditzaten. Hori dela eta, erakusketaren bidez, bildumaren garrantzi historikoa zabaldu, haren jatorriaren balioa azpimarratu eta haren edertasuna partekatu nahi da.

Erakusketa
2023.03.30—2023.05.21



Balenciaga Etxearen marrazkiak 1943-1964

Riva Funtsa. Euskadiko Artxibo Historikoa

Erakusketak ikusgai jartzen du Balenciaga etxean XX. mende erdialdeko hamarkadetan egindako lanaren prozesua, 120 marrazki eta dokumenturen bidez. Diseinua kontzeptualizatzen denetik aurkezten den arteko prozesua azalduko da, eta zati handi bat egikaritzeari buruzkoa da.

Zenbait eskuk eta askotariko teknikak erabiliz egindako zirriborroez gain, hainbat dokumentu pribatu eta Cristobal Balenciagak eskuz idatzitako ohar ugari bildu dira. Azken dokumentuok agerian uzten dute jostunak etengabeko inplikazioa izan zuela prozesu osoan, eta multzoari interes gehigarria ematen diote.

Kontzeptualizaziotik egikaritzera

Funtsaren ia bosten bat aurretiazko zirriborroek osatzen dute. Oharrik gabeko marrazkiok esplorazio-ideiak irudikatzen dituzte, eta ez dira nahitaez bildumako modelo bihurtzen. Horietan, nabarmentzekoa da 1951ko udako bilduman aurkeztutako modelo erdi-estutu bat, zeina mugarri bat izan zen modaren historian.

Erakusketaren zatirik garrantzitsuen 1956 eta 1962 bitartean egindako tailerreko zirriborroei dagokie. Marrazkion bidez, Etxeak denboraldi bakoitzean aurkezten dituen modeloei buruzko informazio zehatza aurkezten da. Zirriborroetan erregistro-zenbaki bat, gauzatzeaz arduratzen den *première d'atelier* delakoaren izena eta aurkeztuko duen manikiaren izena jasotzen da. Zirriborro asko materialei eta hornitzaileei buruzko oharrekin eta ehun-laginekin osatzen dira.

Cristóbal Balenciagak eskuz idatzitako oharretan, zenbait modeloren eraketari buruzko aldaketak eta argibideak ere ikus daitezke. Horietan, Etxearen ekoizpen-prozesuaren beste alderdi bat islatzen da. Bilduma aurkeztu arte, modelo bakoitzak aldaketa puntualak izan zitzakeen, hala gauzatzeari dagokionez nola multzoko beste jantzi batzuekiko harremanari dagokionez.

Merkaturatzea eta salmenta

Zirriborro komertzialak ez dira hain ohikoak funtsean, 1950eko hamarkadakoak dira eta bildumen aurkezpenetarako egiten dira. Desfile horiek, Parisko etxean ez ezik, Europako eta Amerikako beste hiri batzuetan ere egiten ziren. Katagoria honetan sartzen dira, halaber, erosketa-prozesuan hainbat bezerori bidalitako zirriborroak, bai eta publizitate- eta sustapen-xedea izan zezaketen zirriborro landuagoak ere.

Total look delakoaren garrantzia hauteman daiteke funtsean, osagarriei buruzko zirriborro-multzo txiki baten bidez. Cristóbal Balenciagak eskuz idatzita jaso zituen materialei eta koloreei buruzko oharak, baita kapelak eta burukoak jartzeko posizioak ere; hala, argi dago jostunak siluetaren sorkuntza-prozesu osoan parte hartu zuela.

Antzerkirako zirriborroak

Funtsak antzerki-emanaldietarako zirriborro ugari ditu, 1940ko hamarkadan eginak. Jankera historikoaren ezagutza zabal eta zehatza agerian geratzen da zirriborro horietan; besteak beste, Alice Cocéa aktoreak *Echec à Don Juan* (1941) antzezlanean erabiltzeko egindako modelo batzuk aurki daitezke.

Antzerki baterako zirriborroa, 1942
Riva Funtsa. Euskadiko Artxibo Historikoa



2022ko abenduan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Parisko Balentziaga Etxeari buruzko 8.362 dokumentuko funts bat erosi zion Lorenzo Rivari, hark kontserbatzen baitzituen dokumentuok, 1980ko hamarkadaren hasieran markaren zuzendari sortzaile izan ondoren.

Artxibo publikoa

Halako tamaina eta garrantzia duen artxibo ezagun bakarra da hau. Munduko beste ezein museok ez du gordetzen Balenciagari buruzko halako beste dokumentu-funts espezifikorik, eta gaur egungo Balenciaga etxeak soilik du funts handiago bat, baina ez dago sarbide publikorik haren artxiboetara jotzeko.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriak adierazi duenez, «Balenciagaren mota horretako lehen bilduma da, eta arlo publikoaren esku dago; beraz, ondarearen ikuspegitik oso aberasgarria da euskal kultura-ondarea eratzeko».

Cristóbal Balenciaga Museoko zuzendari Miren Vivesen ustez, zirriborroen bilduma horrek «bultzada handia ematen die Museoko dokumentu-funtsei. Erosketa horren bidez, Museoarekin lotutako dokumentu-ondarearen erreferentzialtasuna eta nazioarteko proiektzioa sendotu eta indartu egin da».

Funtsari esker, ikerketa-ildo garrantzitsuak zabalduko dira eta, ondorioz, Cristóbal Balenciagaren sormen-prozesuari buruzko ezagutza berria sortuko da.

Bildumaren jatorria

Cristóbal Balenciaga Fundazioak Cristóbal Balenciaga moda-diseinatzailearen tailerrean sortua izan zitekeen artxibo dokumental baten digitalizazioa, antolaketa eta zabalkundea hauteman zuen, eta hura topatzeko lanari ekin zion. 2021eko abenduan jarri ziren lehen aldiz harremanetan Lorenzo Rivarekin, bildumaren jabearekin, eta hura zabaltzeaz arduratzen zen artconsulting.net enpresarekin.

Rivak Balenciagako zuzendari artistiko gisa lan egin zuen 1980 eta 1982 artean, eta enpresaren salmenta negoziatzen ari zirenean, handik irteteko kalte-ordain ekonomiko bat eta jenerotan ordaindutako beste bat adostu zituen; azken hori da, hain zuzen, gaur aurkezten den artxiboa. Marrazkiak kutxa batzuetan gordeta egon ziren 2021era arte. «Ez nuen inoren eraginik izan nahi, marrazki ederrak ziren, eta poztu egin nintzen salbatu nituelako, besterik ez nuen behar. Nahasmeneko urte haietan, zeinetan Balenciaga Etxean sozietate-aldaketa etengabeak egon ziren, galdu egingo ziren», italiar diseinatzailearen hitzetan.

Lorenzo Rivarekin harremanetan lehen aldiz jarri eta informazioa Cristóbal Balenciaga Fundazioaren Patronatuan aurkeztu ondoren, zeinetan Eusko Jaurlaritzak kide fundatzaile gisa parte hartzen duen, dokumentu-artxiboaren azterketa xehatua hasi zen. Hala, zenbait bisitaldi egin ziren funtsetara, artxiboa *in situ* aztertzeko eta funtsaren benetakotasuna egiaztatzeko.

Euskadiko Artxibo Historikoan gordetako funtsari prebentziozko kontserbazioa egin zaio eta inbentariatu egin da. Material guztia digitalizatzen ari dira —etorkizunean zuzenean manipulatu gabe ikertu ahal izateko—, eta papera kontserbatzeko euskarri egokietan jarri dute. Gainera, erakusketaren ondoren, funtsa behin-behinean siglatuko da eta hura aztertu eta katalogatzeko lanei ekingo zaie.

«Oso pozik nago marrazkiak orain Cristóbal Balenciaga Museoan gordetzen direlako. Leku egokia da. Ziur nago merezi duten bezala aztertu eta baloratuko dituztela. Moda ez da soilik negozio bat, historia da, unean uneko gizartearen isla», ondorioztatu du Rivak, zeina, 84 urterekin, Monzatic (Italia) etorri den erakusketaren irekiera ikustera. Gainera, bere zenbait diseinuekin osatuko du erakusketa.

Zirriborro artistikoa. 50eko hamarkada
Riva Funtsa. Euskadiko Artxibo Historikoa



ete 1952



Cristóbal Balenciaga Museoak 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da —3.500 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak xx. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.



INFORMAZIOA

Zuriñe Abasolo Izarra
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

